



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.11.26an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
KARMELE URIBARRI URRESTI (ordezkoa)
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
JUAN BENGOA PAGALDAY
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko azaroaren 26an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2019ko urriaren 29an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Foru Kontratazio Zentrala

a) Energia elektriko hornitzeko kontratazio espedienteari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, energia elektriko hornitzeko kontratazio espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek horniketa honen beharra izaten jarraitzen duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Energia elektriko hornitzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari Mankomunitate honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientearen arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
3. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
4. Lehendakariari baimena ematea Mankomunitate honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

b) Posta zerbitzua emateko kontratu eratorria esleitzea

“Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzekeo esparru akordio” espedienteari dagokionez, 2019ko irailaren 6ko Gobernantzako foru diputatuaren Foru Aginduaren bitartez zera erabaki zen:

1. GUREAK MARKETING, S.L.U. enpresarekin burutzea aipatu espedientearen 1. sortari dagokion esparru akordioa, hau da, posta arrunta.
2. SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. enpresarekin burutzea aipatu espedientearen 2. sortari dagokion esparru akordioa, hau da, ziurtagiriak, jakinarazpenak eta zerbitzu bereziak..

Mankomunitate honi dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea.

Mankomunitate honen posta zerbitzuaren gutxi gorabeherako urteko gastua 8.000 €-koa da.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratuak esleitzea, sinatutako Esparru Akordioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- GUREAK MARKETING, S.L.U. enpresari esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzuaren 1. sorta kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua, 2020ko martxoaren 1etik aurrera, sinatutako esparru akordioaren baldintzetan.

BIGARRENA.- SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. enpresari esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzuaren 2. sorta kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua, 2020ko martxoaren 1etik aurrera, sinatutako esparru akordioaren baldintzetan.

HIRUGARRENA.- Kontratu hauei dagokien gastuari aurre egiteko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzea.

c) Automobilgintzako erregaiak biltegieta hornitzeko kontratu eratorria esleitzea

“Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez automobilgintzako erregaien hornikuntza kontratatzekeo esparru akordio” espedienteari dagokionez, 2019ko abuztuaren 20ko Gobernantzako foru diputatuaren Foru Aginduaren bitartez erabaki zen ESERGUI DISTESER, S.L. enpresarekin burutzea aipatu espedientearen 2. sortari dagokion esparru akordioa, hau da, automobilgintzako A gasolioaren hornikuntza biltegieta.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Mankomunitate honi dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornikuntza interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea.

Mankomunitate honen A gasolioaren gutxi gorabeherako urteko gastua 75.000 €-koa da.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESERGUI DISTESER, S.L. enpresari esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez automobilgintzako erregaien hornikuntzaren 2. sorta kontratatzeke esparru akordiotik eratorritako kontratua, sinatutako esparru akordioaren baldintzetan.

BIGARRENA.- Kontratu honi dagokion gastuari aurre egiteko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzea.

2.2.- Mankomunitatearen hainbat aseguru kontratatzeke espedientea

Mankomunitatearen hainbat aseguru pribatu prozedura ireki bidez kontratatzeke bideratu den espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea. Kontratu hau hiru loteetan banatuko da:
 1. LOTEA: Debagoieneko Mankomunitatearen ondarea osatzen duten higiezinari egindako kalteen gaineko aseguru (edukizaila eta edukia).
 2. LOTEA: Ondarezko Erantzukizun Zibileko Aseguru, Mankomunitateari – jabari publikoko eta ondarezko ondasunen titular gisa eta zerbitzu publikoen emaile gisa– hirugarrenen aurrean egotz dakioken erantzukizunaren gainekoa, turismoaren inguruan ekitaldi publikoak antolatzearen ondorioz egotz dakioken erantzukizuna barne; horien artean: bisita gidatuak, bildotsak burruntzian erretzea, ikuskizunak, mendi ibiliak, etab.
 3. LOTEA: Ingurumen arloko Erantzukizun Zibileko aseguru, Mankomunitateari, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegian izan litezkeen kalteen ondorioz, egotz lekioken erantzukizunaren gainekoa.
2. Gastua onartzea, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar den kreditua erreserbatzeke konpromisoarekin.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

2.3.- Behin betiko berme bat bueltatzea

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Ondorengo bermea itzultzea:

- 1.- Enpresa: ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA.

Kontratua: 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratua. (2017).

Zenbatekoa: 3.625 €.

3.- INGURUMENA

3.1.- Poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratazio espedientea; proposamenen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2019ko urriaren 4an egindako bilkuran, ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen zatiki organiko konpostagarria jasotzeko neurri desberdinetako poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo proposamenak aurkeztu ziren, eta denak onartu ziren. Honako hauek dira:

1 lotea, 10 litroko poltsak

1. AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L.
2. BOLSAS CASTRESANA, S.L.
3. ID WASTE, S.L.
4. MAKROPLAS, S.L.
5. MOHEDA & RAÑAL, S.L.

2 lotea, 40 litroko poltsak

1. ALQUI-ENVAS, S.L.
2. BOLSAS CASTRESANA, S.L.
3. ID WASTE, S.L.
4. MAKROPLAS, S.L.
5. MOHEDA & RAÑAL, S.L.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3 lotea, 60 litroko poltsak

1. ALQUI-ENVAS, S.L.
2. ID WASTE, S.L.
3. MAKROPLAS, S.L.
4. MOHEDA & RAÑAL, S.L.

4 lotea, 120 litroko poltsak

1. ALQUI-ENVAS, S.L.
2. BOLSAS CASTRESANA, S.L.
3. ID WASTE, S.L.
4. MAKROPLAS, S.L.
5. MOHEDA & RAÑAL, S.L.

B gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak, ondorengo proposamenak baztertzea erabaki zuen honako arrazoi hauengatik:

- **AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L., 1 lotea:** Baldintza Teknikoen Agiriaren 3.1. klausulan jasotako baldintza ez betetzeagatik: *“soldadurak poltsaren alboetan”*. Aurkeztutako laginek soldadura poltsaren hondoa daukate.
- **BOLSAS CASTRESANA, S.L., 1, 2 eta 4 loteak:** aurkeztutako poltsek UNE-EN 13432 araua betetzen dutela ziurtatzen duen agiria ez aurkezteagatik. Aurkeztutako ziurtagiria beste enpresa baten erosketa poltsa batena da.
- **ID WASTE, S.L., 3 lotea:** Baldintza Teknikoen Agiriaren 3.1. klausulan jasotako baldintza ez betetzeagatik: *“bateragarritasuna neurri bertsuko edukiontziaekin...”*. Ez du lote honi dagokion lagina aurkeztu (60l), 4 loteari dagokion lagina aurkeztu du (120l).
- **MAKROPLAS, S.L. 1, 2, 3 eta 4 loteak:** Baldintza Teknikoen Agiriaren 3.1. klausulan jasotako baldintza ez betetzeagatik: *“bateragarritasuna neurri bertsuko edukiontziaekin...”*. Aurkeztutako laginek ez dira lote bakoitzari dagozkion edukiontziaekin bateragarri. Eta gainera, 1 loterako aurkeztutako laginak ez du ahorik, ezin da ireki.
- **MOHEDA & RAÑAL, S.L. 1, 2, 3 eta 4 loteak:** Baldintza Teknikoen Agiriaren 3.1. klausulan jasotako baldintza ez betetzeagatik *“gutxieneko lodiera”*. Aurkeztutako laginek ez dute lote bakoitzerako eskatutako gutxieneko lodiera baldintza betetzen.

Onartutako proposamenen “B” gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako proposamenen “C” gutun azal elektronikoak ireki zituen, eskaintzak segida beharrezkoan sailkatuz, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan jasotako irizpideen arabera.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, Karmele Uribarri, Ainhoa Cabero, Maria Ubarretxena, Ander Garay, Maitane Muñoz eta Jose Ramón Zubizarretaren abstentzioarekin, ZERA ERABAKI DU:

1. Proposamenen ondorengo sailkapena onartzea:

1 lotea (10 litroko poltsak)

	<u>Enpresa lizitatuak</u>	<u>B sobrea</u> <u>Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak</u> <u>40 puntu</u>	<u>C sobrea</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> <u>60 puntu</u>	<u>GUZTIRA</u> <u>100 puntu</u>
1	ID WASTE, S.L.	38	60	98 puntu

2 lotea (40 litroko poltsak)

	<u>Enpresa lizitatuak</u>	<u>B sobrea</u> <u>Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak</u> <u>40 puntu</u>	<u>C sobrea</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> <u>60 puntu</u>	<u>GUZTIRA</u> <u>100 puntu</u>
1	ID WASTE, S.L.	31	60	91 puntu
2	ALQUI-ENVAS, S.L.	33	38,06	71,0625 puntu

3 lotea (60 litroko poltsak)

	<u>Enpresa lizitatuak</u>	<u>B sobrea</u> <u>Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak</u> <u>40 puntu</u>	<u>C sobrea</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> <u>60 puntu</u>	<u>GUZTIRA</u> <u>100 puntu</u>
1	ALQUI-ENVAS, S.L.	32	60	92 puntu



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

4 lotea (120 litroko poltsak)

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>B sobrea</u> <u>Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak</u> 40 puntu	<u>C sobrea</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> 60 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	ID WASTE, S.L.	35	60	95 puntu
2	ALQUI-ENVAS, S.L.	35	49,71	84,71 puntu

2. Saikapen honen arabera, ID WASTE, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena 1, 2 eta 4 loteetarako, eta ALQUI-ENVAS, S.L. enpresak aurkeztutakoa 3 loterako, aipatu enpresei hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 17, 5º klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.
3. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.
4. Azkenik, BOLSAS CASTRESANA, S.L. enpresak Kontratazio Mahaiaren baztertze erabakiaren jakinarazpena jaso ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntaren aurrean aurkeztutako **gorako errekurtsioa** ezestea, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren txostenean jasotako honako arrazoi hauetan oinarrituta:

“La cláusula 16ª del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, indica que se deben incluir en el sobre electrónico “B”, entre otros:

“...los certificados que acrediten que la bolsa propuesta es compostable según la norma Europea UNE-EN 13432, emitidos por el organismo Belga TÜV AUSTRIA (antes AIB-VINÇOTTE), por el organismo Alemán DIN CERTCO o por algún otro organismo de evaluación de la conformidad de competencia acreditada, a través de las etiquetas “OK Compost”, “DIN-Geprüft Industrial Compostable” o “Compostable” (Seedling-label) de la Asociación Europea de Bioplásticos (European Bioplastics e.V.)”.

Alega la empresa que ha presentado “certificado de la materia prima según misma norma y organismo”, que en los pliegos del concurso “no indica que el certificado solicitado tenga que estar a nombre del licitador, sino que la bolsa esté certificada”, que la empresa certifica este extremo “en la ficha técnica de la bolsa”, que ha



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

presentado un acuerdo de colaboración empresarial “en el cual se indica que Plásticos Alhambra fabrica la materia prima de acuerdo a la norma UNE-EN 13432 y Bolsas Castresana confecciona el producto final, sin que exista alteración posible de las propiedades del producto que ya está certificado, siendo esta última la que ejerce el derecho de representación ante organismos públicos o privados”, que “queda suficientemente acreditada la trazabilidad del producto”, y que “no compramos la bolsa como indica el motivo de exclusión, sino que obtenemos la materia prima ya certificada para su transformación final según formato requerido en cada contratación”.

Por todo ello, la empresa entiende que queda suficientemente acreditado el cumplimiento del requisito de la cláusula 16ª del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Se valoran a continuación las alegaciones presentadas:

- La empresa no ha presentado como señala “certificado de la materia prima según misma norma y organismo”, sino un certificado válido “OK Compost” de un producto final diferente al ofertado por la empresa, concretamente una bolsa de compra de la empresa Plásticos Alhambra, S.L., tal y como se recoge en el propio certificado: “Grupo de producto(s): Productos finales; Familia de producto(s): Bolsas; Tipo de producto(s): Bolsa de compra”, tanto en su versión en Español como en Inglés.
- Respecto a que en los pliegos del concurso “no indica que el certificado solicitado tenga que estar a nombre del licitador, sino que la bolsa esté certificada”, en efecto, así es, el certificado puede estar a nombre de otra empresa siempre que la bolsa que se propone esté certificada. En este caso, la bolsa que se propone, la fabricada por Bolsas Castresana, S.L., no está certificada, tal y como se valora más adelante en este informe.
- Respecto a que la empresa certifica el cumplimiento del requisito solicitado “en la ficha técnica de la bolsa”, señalar que para acreditar el cumplimiento del requisito expresamente se requiere en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares la presentación de certificados emitidos por organismos de evaluación de la conformidad de competencia acreditada, por lo que no se puede admitir como acreditación lo que la empresa declare en una ficha técnica.
- Se alega también que “no compramos la bolsa como indica el motivo de exclusión”. A este respecto, señalar que no es éste el motivo de exclusión. La documentación presentada al concurso por la empresa deja



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

meridianamente claro que Bolsas Castresana no compra el producto final a Plásticos Alhambra sino la materia prima, por lo que no ha existido ninguna duda al respecto.

Seguidamente se valoran de forma conjunta las siguientes alegaciones, por referirse a la principal motivación del recurso presentado: que la empresa ha presentado un acuerdo de colaboración empresarial *“en el cual se indica que Plásticos Alhambra fabrica la materia prima de acuerdo a la norma UNE-EN 13432 y Bolsas Castresana confecciona el producto final, sin que exista alteración posible de las propiedades del producto que ya está certificado, siendo esta última la que ejerce el derecho de representación ante organismos públicos o privados”, que “queda suficientemente acreditada la trazabilidad del producto”, y que “que obtenemos la materia prima ya certificada para su transformación final según formato requerido en cada contratación”.*

Los organismos de evaluación de la conformidad con competencia acreditada pueden extender certificación de cumplimiento de la norma UNE-EN 13432 a diferentes productos. En el caso de las certificaciones con etiqueta “OK Compost”, el organismo TÜV AUSTRIA publica en su página web el listado de productos certificables con esta etiqueta: desde materias primas en diferentes formatos hasta todo tipo de productos terminados, pasando por componentes y constituyentes (se adjunta listado).

Tal y como se desprende de la consulta a la base de datos de productos certificados que TÜV AUSTRIA publica en su página web, Bolsas Castresana, S.L. no posee certificación “OK Compost” para ninguno de sus productos. Plásticos Alhambra, S.L. posee dos certificaciones en vigor, que corresponden a los siguientes productos:

- Nº certificado O17-2493-B: *Grupo de producto(s): Componentes & Constituyentes; Familia de producto(s): Packaging – Componentes diversos; Tipo de producto(s): “Tubo”.*
- El que se presenta con la documentación del concurso. Nº certificado O16-1958-B: *Grupo de producto(s): Productos finales; Familia de producto(s): Bolsas; Tipo de producto(s): Bolsa de compra.*

Con la información aportada por la empresa no es posible saber si la materia prima con la que Bolsas Castresana declara fabricar sus bolsas se corresponde al



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

producto denominado “tubo” que posee certificación “OK Compost”. Tampoco se aporta esta certificación en la documentación del concurso.

En cualquier caso, aun suponiendo que así fuese y la empresa hubiera aportado un certificado “OK Compost” válido de la materia prima, lo cual no ha hecho, el certificado de la materia prima solamente certificaría que la materia prima cumple con la norma requerida, y no certificaría que los productos finales fabricados con dicha materia prima cumplen con la norma, debido a que para la fabricación del producto final (el producto propuesto para este concurso) Bolsas Castresana, S.L. podría añadir tintas, adhesivos, aditivos u otros componentes.

No es suficiente acreditación que la empresa declare, como hace en la ficha técnica del producto, que *“en el proceso de fabricación del producto final, dicese la formación del rollo compuesto por las soldaduras y los precortes, indicar que en cualquier caso el producto no se ve alterado ni modificado con aditivos ni otras sustancias. no añade ningún componente adicional para la fabricación de la bolsa”,* ni que declare en el escrito del recurso que *“Bolsas Castresana confecciona el producto final, sin que exista alteración posible de las propiedades del producto que ya está certificado”,* o que *“queda suficientemente acreditada la trazabilidad del producto”*.

Tal y como se establece en la cláusula 16ª del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares debe ser un organismo de evaluación de la conformidad de competencia acreditada el que certifique que la bolsa propuesta, (EL PRODUCTO FINAL), una vez haya pasado por todos los procesos para su fabricación, incluidos los procesos que realiza Bolsas Castresana, S.L. en sus instalaciones, cumple con los requisitos de la norma UNE-EN 13432. Bolsas Castresana, S.L. no presenta certificación válida del producto final que propone para este concurso, por lo que sus propuestas deben ser excluidas del mismo.

Es por este motivo que TÜV AUSTRIA prohíbe expresamente la utilización de una etiqueta “OK Compost” válida de una materia prima por parte de otras empresas que fabriquen productos con la misma, tal y como se puede comprobar en el documento sobre utilización de los logos “OK Compost” que este organismo publica en su página web (se adjunta).

El logo “OK Compost” debe mostrarse en el producto final con el código SXXXX que identifica al propietario de la de la licencia del certificado del producto final, tal



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

y como se exige en el Pliego de Prescripciones Técnicas. Si como la empresa pretende, las bolsas propuestas se suministraran con el logo "OK Compost" y el código S0256, que corresponde a otro producto y de otra empresa (Plásticos Alhambra, S.L.), estaría incurriendo en una utilización fraudulenta de la etiqueta."

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat luzapen

- **N.I.E. (Aholkularitza Integrala); 3. urterako luzapena**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko abenduaren 4ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 8-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, N.I.E. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko azaroaren 14ko erabaki bitartez.

- **N.B.B. (Arropen diseinua); 2. urterako luzapena**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko abenduaren 20ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-IM industri modulua erabiltzeko baimena, N.B.B. andreari emana, Gobernu Juntaren 2018ko azaroaren 20ko erabaki bitartez.

4.2.- Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran argiteri publikoaren instalazioak berritzeko II proiektua; IDAEekin mailegu kontratua eta Udalekin hitzarmenak sinatzea

2017ko azaroaren 14ko bilkuran Gobernu Juntak hartutako erabakia betez, Mankomunitateak IDAEren aurrean bere hainbat udalerritan argiteri publikoaren instalazioak berritzeko bigarren proiektu bateratua finantzatzeko mailegu eskaera aurkeztu zuen.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

IDAEk aipatu eskaera onartu zuen, eta Mankomunitateak, 2018ko azaroaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

1. IDAEk emandako mailegua onartzea, eta berarekin dagokion mailegu kontratua sinatzea ondorengo baldintzetan:
 - Erakundea: I.D.A.E. Eraginkortasun energetikoaren fondo nazionala.
 - Helburua: "Debagoieneko Kanpoko Argiteria Publikoaren Instalazioan Energia Eraginkortasuna hobetzeko proiektua edo Memoria II"-an jasotako inbertsioak finantzatzea.
 - Zenbatekoa: 863.563 €.
 - Interes tipoa: %0,0a.
 - Amortizazio epea: guztira 10 urte (9 + gabealdiko epea, urtebete)
 - Bermea: Salbuetsia I.D.A.E. lehentasunezko hartzekodun.

Orain, proiektu bateratua gauzatzeko kontratuak sinatu ondoren, IDAEk maileguaren behin betiko zenbatekoa finkatu du **675.348,60 €**-tan, mailegu kontratuaren zirriborroa bidaliz.

Bestalde, bigarren proiektu bateratu hau garatzeko 2018ko ekainaren 19an Mankomunitateak Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako Udalekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausulan zera esaten da: "*IDAEn behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duen Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.*"

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. IDAErekin dagokion mailegu eskritura sinatzea, proposatutako testuaren arabera, horretarako Mankomunitateko Lehendakariari, MAITE ANTÓN LENOri, ahalmena emanez.
2. Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako Udalekin hitzarmenak sinatzea Udal bakoitzari dagozkion ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz. Hona hemen Udal bakoitzari dagokion zenbatekoa:
 - Aretxabaleta: 206.572,80 €.
 - Arrasate: 406.085,59 €.
 - Bergara: 62.690,21 €.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

19/69.- Mankomunitateko Plantila Organikoan sartuta dagoen lan-kontratupeko etxe hondakinak jasotzeko zerbitzuaren gidari-langileburu lanpostua betetzeko IMANOL AYALA MAZORRIAGaren lan kontratua aldatzea 2019ko azaroaren 1etik aurrera.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

19/70.- 19/21 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (51.560,60 €).

19/71.- 19/22 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (296.597,59 €).

19/72.- Goian zehaztutako egitateengatik R.J. jaunaren aurka irekitako zigor-espeditentearen prozedura amaitutzat ematea.

19/73.- I.I.C. izendatzea bitarteko funtzionario, 2019ko azaroaren 25etik aurrera, aipatu informatzaile-teknikariaren ordezkapena egiteko, bere gaixotasunagatiko bajaldia bukatu arte. Dena den, izendapen hau gehienez ere informatzaile-teknikari bi lanpostu betetzeko hautaketa prozesua bukatu eta behin betiko betetakoan bukatutzat emango da.

6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA